

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Yolanda Barcinak Pirinioetako Lan Elkartearen presidente kargua hartuko du ostegun honetan

Nafarroak Toulouse-ren lekua hartuko du datozen bi urtetarako, muga arteko kooperazio-organo horren buru

Martes, 25 de octubre de 2011

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak Pirinioetako Lan Elkartearen (CTP) 29. Kontseilu Orokorrean parte hartuko du ostegun honetan; saio horretan Nafarroak muga arteko kooperazio-organoaren presidentzia hartuko du datozen bi urtetarako.



La Région hotela, Toulouse.

Yolanda Barcinak gaur egun CTPren presidentzia duen Midi-Pyrénées eskualde frantsesera bidaiatuko du; Barcinarekin batera, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilari Juan Luis Sánchez de Muniáin joango da, Erakunde Harremanetako zuzendari nagusi Fátima Baigorri, eta baita Ekonomia nahiz Nazioarteko Politikako zuzendari nagusi Maria Jesús Valdemoros ere .

Osoko bilkura eta CTPk antolatutako jardueren programa paraleloa La Region hotelean egingo dira, Midi-Pyrénées eskualdeko gobernuaren egoitzan.

Ekitaldien programa

Osteguneko jardunaldia CTP osatzen duten eskualdeetako ordezkarien lan-bazkari batekin hasiko da: Akitania, Midi-Pyrénées eta Languedoc-Roussillon, Frantzia; Katalunia, Aragoi, Nafarroa eta Euskadi, Espainia eta Andorra.

Jarraian, Midi-Pyrénées eskualdeko presidente Martin Malvyse-k osoko bilkurari hasiera emango dio CTPren buru egin dituen bi urtetako balantze bat eginez; ondoren, mahai-inguru bat egingo da 2013. urtetik aurrerako Muga arteko integrazioaren etorkizuna -ri buruz; bertan muga arteko organo horretan sartutako erkidegoen presidentek parte hartuko dute.

Azkenik, Pirinioetako Lan Elkartearen presidentzian errelebua hartzeko ekitaldia burutuko da; bertan Yolanda Barcinak presidentzia hartuko du Martin Malvy-ren eskutik.

CTPren kide diren eskualdeen ordezkari moduan, Espainiatik honako hauek izatea aurreikusita dago: Kataluniako Generalitat-eko presidente

Artur Mas; Aragoiko Gobernuakon presidente Luisa Fernanda Rudi eta Eusko Jaurlaritzaren muga arteko kooperazioko ordezkari Miguel Angel Crespo. Frantziatik, Languedoc-Roussillon-eko presidenteorde Jean Claude Gayssot, Midi-Pyrénées eskualdeko presidente Martin Malvy eta Akitaniako presidente Alain Rousset. Andorratik, berriz, Kanpo Gaietarako ministro Gilbert Saboya izango da.

CTPren ekitaldi paraleloak

Saio hori egitearekin batera, Pirinioetako Lan Erkidegoak ostegun honetarako, hilak 27, "Muga arteko ekimenen foro" bat antolatu du, non CTPko kide diren eskualdeen arteko kooperazioko 30 proiektu erakutsiko diren; bertan Nafarroako sei erakundek zortzi proiektutan parte hartzen dute

Zehazki, muga arteko ekimenen foroan parte hartzen duten erakundeak ondorengoak dira: Gestión Ambiental de Navarra SA (Nafarroako Ingurumen Kudeaketa SA) sozietate publikoa; Fundación para la Investigación Médica Aplicada –FIMA– (Medikuntza Ikerketa Aplikaturako Fundazioa); Asociación de Criadores de Ovino de Raza Latxa de Navarra –Aslana ITG ganadero– (Nafarroako Latxa Arrazako Ardi Hazleen Elkarte –Abeltzantzako Aslana ITG-); Fundagro (UAGNren fundazioa); Asociación Nuevo Futuro (Nuevo Futuro Elkarte); eta Asociación Navarra de Empresas Laborales –ANEL– (Nafarroako Lan Enpresen Elkarte).

Foro horri esker, muga arteko lurralde horretako eragileen artean esperientziak bizi eta partekatze aukera izango da, eta bere garapen ekonomikoa eta iraunkorra laguntzeko balioko du.

Aurreko egunean, asteazkenean, Nafarroako Gobernuko Herri Lan eta Garraioetako zuzendari Camino Bonafaux eta Berta Mirandak, hurrenez hurren, Toulouse-n ere egingo diren Pirinioetako Komunikazioei buruzko V. Konferentzian parte hartuko dute. Camino Bonafaux-ek "Zer abiadura handiko sarea abian jarri behar da Europako hego-ekialdean?" izeneko mahai-inguruan esku hartuko du, eta Berta Mirandak, berriz, Nafarroan abiadura handiko tren ezartzeak zer eragin sozio-ekonomikoa duen azalduko du.

Pirinioetako Lan Elkarte

Pirinioetako Lan Elkarte (CTP) 1983an jaio zen Pirinioetako zonaldeari muga arteko kooperazio-egitura bat emateko asmoz, Europako beste muga batzuetan daudenen antzekoa.

CTPren helburu nagusia Pirinioetako mendigunearen garapenean laguntza ematea da, haren erronkak aintzat hartuz eta aberastasunak zainduz, eta baita nazio arteko kooperazioa sustatuz ere.

2005. urtetik, CTPk Partzuergo bat eratu zuen, eta haren bidez Europako garapeneko funtsak kudeatzeko aqinpidea hartzeko izendatu zen (INTERREG IV A Espainia-Frantzia-Andorra programa).